



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

ENPLEGUKO ETA GIZARTE
POLITIKETAKO SAILA

DEPARTAMENTO DE EMPLEO
Y POLÍTICAS SOCIALES

LABURPENA

EJ-REN IV. GAZTE PLANAREN URTEKO JARRAIPEN-EBALUAZIOA: 2019KO TXOSTENA

4. #gazteplana#
EUSKO JAURLARITZA | GOBIERNO VASCO



#01

Sarrera




EJren IV. Gazte Planaren urteko jarraipen-ebaluazioa: 2019

Sarrera

2019ko jarduketaren Plan Operatiboan Eusko Jaurlaritzako zuzendaritza bakoitzak Eusko Jaurlaritzaren IV. Gazte Planaren bigarren indarraldi-urtean egin beharreko jarduketa guztiak biltzen dira, horretara bideratutako aurrekontua zehaztuta, baita ebaluazio-adierazleak eta jarduketa bakoitzean lortu beharreko helburua edo xedea ere.

Eusko Jaurlaritzaren konpromisioa gazteriarekin



Urteko jarduketa-programa horren gauzatzea amaitu ondoren, bai gauzatze fisikoa bai finantzarioa ebaluatzeko garaia da. Horren bidez, emaitzen eta lortutako estaldura-mailaren berri izateaz gain, informazio- eta jarraipen-sistema bera aztertuko da, maila operatiboan eta estrategikoan finkatutako helburuak lortzea bermatuko duten gomendioak emateko asmoz.

EJren IV. Gazte Planaren urteko jarraipen-ebaluazioa: 2019

Sarrera

Urteko jarraipen-ebaluazioaren helburuak

- ✓ Jarduketa guztien gauzatze fisikoaren egoera eta planteatutako helburuen betetzea ikustea eta emaitza zuzenak edo berehalakoak baloratzea.
- ✓ Gauzatze finantzarioaren maila egiaztatzea eta hasieran aurreikusitako aurrekontuarekin alderatuz desbideratzerik izan den begiratzea.
- ✓ IV. Gazte Planaren bigarren indarraldi-urteko benetako estaldura-maila ezagutzea eta, maila orokorrean, eragile onuradun motak aztertzea.
- ✓ 2019ko jarduketaren programazioa martxan jartzean esku hartu duten eragileen erantzukidetasun-eta elkarlan-maila baloratzea.
- ✓ Planeko jarduketak ezartzearekin eta horren jarraipen-prozesuarekin lotutako gorabeherak antzematea eta erabilitako prozedura eta tresnak berrikustea.

#02

Metodologia



EJren IV. Gazte Planaren urteko jarraipen-ebaluazioa: 2019

Metodologia

Ebaluazio mota

Egindako ebaluazioa honako kategoria hauen arabera tipifikatzen da...


Planaren garapen-fasea



Ezarpenaren edo prozesuaren ebaluazioa

Planaren martxan jartzea, aplikazioa eta funtzionamendua baloratzen ditu, hasieran aurreikusitakoarekin alderatuz.

Egiteko garaia



Jarraipen-ebaluazioa

Programatutako jarduketan benetako aplikazio-maila eta ondorio zuzen edo berehalakoak baloratzen ditu, baita Planaren ezarpenaren neurketa-, kudeaketa- eta kontrol-sistemaren funtzionamendua ere.

Eragile arduraduna



Kanpo-ebaluazioa

Ebaluazio-txostena 2019ko Plan Operatiboa gauzatzearen arduradun diren erakunde edo eragileetatik independentea den kanpoko talde tekniko batek egin du.

Eginkizuna



Prestakuntza-ebaluazioa

Eusko Jaurlaritzaren IV. Gazte Plana eta horren urteko plan operatiboak hobetzeko informazioa ematera bideratuta dago.

EJren IV. Gazte Planaren urteko jarraipen-ebaluazioa: 2019

Metodologia

Erabilitako ebaluazio-irizpideak

Betetzea

Programatutako jarduketan gauzatze fisikoaren maila eta aurrekontuaren betearazte-maila, erabilgarri dauden bitartekoen erabilera neurtzeko.

Eraginkortasuna

2019. urtean gauzatutako jarduketan bidez lortu nahi ziren helburuen eta izandako emaitzen arteko lotura.

Estaldura

Egindako jarduketan benetako onuradun diren pertsona edo entitateen proportzioa. 2019. urteko Plan Operatiboak gazteen kolektiboari zehazki zuzendutako jarduketak zein neurritan biltzen dituen ere baloratzen du irizpide horrek.

Erantzukidetasuna

Jarduketan garapenean hainbat eragilek kogatzaile edo kolaboratzaile gisa duten partaidetza-maila.

Ebaluazioak honako galdera hauei erantzuten die:

- Jarduketan urteko Plan Operatiboa planifikatu bezala garatzen ari da?
- Zein da programatutako jarduketan aurrerapenaren edo gauzatze fisikoaren egoera?
- Programatutako jarduketak martxan jartzeko erabilitako bitartekoei dagokienez, zenbaterainokoa da gauzatze finantzarioa?
- Emaitzen adierazleetan finkatutako xede-balioak lortzen ari dira?
- Zein neurritan ari dira betetzen jarduketa bakoitzerako planteatutako helburuak?
- Jarraipen-sistemak Planaren gauzatzea eta emaitzak baloratzeko behar den informazioa bermatzen du?
- Gazteen kolektiboarengana iristen ari da?
- Programatutako jarduketan gauzatzean beste entitate, eragile edo administrazio batzuk ere parte hartzen ari dira?

#03

Ebaluazio-irizpideen betetze-mailaren analisi



EJren IV. Gazte Planaren urteko jarraipen-ebaluazioa: 2019

Ebaluazio-irizpideen betetze-maila

1. Betetzea

BETETZE-MAILA:



ERTAINA



TXIKIA



Eusko Jaurlaritzaren IV. Gazte Planeko 2019ko jarduketan Plan Operatiboari esker, guztira **217 jarduketa** jarri dira martxan eta horietara **257-315.688 €**-ko aurrekontua bideratu da.

Kopuru horiek adierazten dutenez, **aurreikusitako aurrekontuaren % 23 baino gehiago gauzatu da** eta **programatutako jarduketan % 97,3 jarri dira martxan.**

257 milioi €

217 jarduketa



1. ardatza

EMANTZIPAZIOA ETA AUTONOMIA

145.491.038 €

134 jarduketa

2. ardatza

ONGIZATEA ETA BIZITZA OSASUNGARRIA

2.377.898 €

19 jarduketa

3. ardatza

BERDINTASUNA ETA GIZARTERATZEA

103.930.634 €

10 jarduketa

4. ardatza

GIZARTE-PARTAIDETZA ETA -KONPROMISOA

3.651.901 €

26 jarduketa

5. ardatza

SOZIALIZAZIOA

1.864.217 €

28 jarduketa

EJren IV. Gazte Planaren urteko jarraipen-ebaluazioa: 2019

Ebaluazio-irizpideen betetze-maila

Eusko Jaurlaritzaren IV. Gazte Planeko hamar jarduketa-esparru edo -arloen mailara jaitsiz, 2019ko jarduketan Plan Operatiboa honela gauzatu da:

	 Egindako jarduketa kopurua	 Gauzatutako gastua
 Enplegua	80 jarduketa	164.712.648 €
 Etxebizitza	5 jarduketa	22.456.546 €
 Hezkuntza	50 jarduketa	61.109.646 €
 Osasuna	19 jarduketa	2.377.898 €
 Gizarte-ekintza eta berdintasuna	9 jarduketa	1.142.832 €
 Partaidetza	22 jarduketa	3.147.979 €
 Kontsumoa	4 jarduketa	503.923 €
 Kultura	9 jarduketa	1.457.337 €
 Kirola	7 jarduketa	191.880 €
 Aisialdia	12 jarduketa	215.000 €
	217 jarduketa	257 milioi €

EJren IV. Gazte Planaren urteko jarraipen-ebaluazioa: 2019


Ebaluazio-irizpideen betetze-maila

Eraginkortasuna

BETETZE-MAILA:



2019. urteko Plan Operatiboak **eraginkortasun-maila handia** izan du, **gauzatutako jarduketan % 77k baino gehiagok finkatutako helburuak betetzeak** erakusten duen bezala.



2019ko programazioak IV. Gazte Planaren indarraldirako finkatutako **xede-balioen lorpenean egin duen ekarpenari** dagokionez, nabarmentzekoa da, era berean, guztira **177 jarduketatan lortu dela** magnitude-adierazleetan 2019rako finkatutako **xede-balioa**.

EJren IV. Gazte Planaren urteko jarraipen-ebaluazioa: 2019

Ebaluazio-irizpideen betetze-maila

3. Estaldura-maila

BETETZE-MAILA:



ERTAINA



TXIKIA



Lehenengo indarraldi-urtean, IV. Gazte Planak gazteen kolektiboari bakarrik zuzendutako 176 jarduketak jarri ditu martxan eta **gutxienez 625.575 gazteri egin die onura (*)**.



(*) Zifra hori gazte onuradunen kopuru osoari dagokio, pertsona berak jarduketa batean edo gehiagotan parte hartu ahal izan duela kontuan hartuz.

EJren IV. Gazte Planaren urteko jarraipen-ebaluazioa: 2019

Ebaluazio-irizpideen betetze-maila

4. Erantzukidetasuna

BETETZE-MAILA:

HANDIA




ERTAINA



TXIKIA



2019. urtean Eusko Jaurlaritzaren IV. Gazte Planaren esparruan **gauzatutako jarduketaren % 40** inguru **sailarteko lanaren bidez garatzen ari dira**.



- Erakunde erantzukiderik gabeko jarduketa
- Erakunde erantzukideak barne dituen jarduketa



Erkidegoko administraziooko beste organismo eta entitate batzuk
(% 39,02)



Hezkuntza-erakundeak (unibertsitatea, LHko zentroak eta ikastetxeak)
(% 26,83)



Tokiko erakundeak
(% 15,86)



Bestelako entitateak: banku-entitateak, elkarteak (kirol, kultura, guraso, dibertsitate eta abarren arlokoak)
(% 18,29)

EJren IV. Gazte Planaren urteko jarraipen-ebaluazioa: 2019

Ebaluazio-irizpideen betetze-maila

1. Ardatza: Emantzipazio eta autonomia

2019. urterako programatutako jardueren % 62 "emantzipazioa eta autonomia" lehen ardatzaren barruan sartzen dira, eta, batez ere, enplegu- eta hezkuntza-arloek egindako jarduerak nabarmentzen dira. Jarraian, "Emantzipazioa eta autonomia" ardatzean egindako jardura nagusiak aipatzen dira.

Enplegua

Lehen lan aukerak sustatzea

Jarduketa

Zentro pribatu eta publikoekin hitzarmena

Helburua

Euskal Autonomia Erkidegoan lehentasunez langabezian dauden langileei zuzendutako prestakuntza-eskaintza finantzatzeko laguntzak.

Gauzatutako aurrekontua

11.269.000,00 €

Jarduketa

Toki erakundeak gazteak kontratatzeoko programa

Helburua

Tokiko erakundeek gazteak kontratatzeoko laguntzak, 2014-2020 Gazte Enplegurako Programa Operatiboaren esparruan.

Gauzatutako aurrekontua

6.500.000,00 €

EJren IV. Gazte Planaren urteko jarraipen-ebaluazioa: 2019

Ebaluazio-irizpideen betetze-maila

Empleo

Lehen lan aukerak sustatzea

Jarduketa

Lehen aukera programa

Helburua

Titulazioa edo kualifikazioa duten gazteak, langabezian daudenak eta aurretik lan-esperientzia gutxi edo esperientziarik ez dutenak kontratatzeko deialdia, beren tituluarekin lotutako lanpostuetan, kontratu mugagabe baten bidez edo praktiketako kontratu baten bidez.

Gauzatutako aurrekontua

4.000.000,00 €

Jarduketa

Igarotze bekak

Helburua

Unibertsitateetik lan-mundura igarotzeko beken programari esker, unibertsitateko gradu ofizialeko titulazioa lortu duten edo ikasketa horien azken ikasturtean matrikulatuta dauden 850 ikaslek lehen esperientzia praktikoa izango dute lan-munduan. Programan parte hartzen duten unibertsitateko gazteen laneratzearen jarraipen espezifikoa egingo da, eta enpresen sentsibilizazioa azpimarratuko da, gazteek lehen lan-esperientziak eskura ditzaten laguntzeak duen garrantziari buruz. Izan ere, funtsezko elementua izango da, epe ertainean profil profesionaletan eragina izango duena, enpresen benetako beharretara hobeto egokituta.

Gauzatutako aurrekontua

3.200.000,00 €

EJren IV. Gazte Planaren urteko jarraipen-ebaluazioa: 2019

Ebaluazio-irizpideen betetze-maila

Hezkuntza

Ikasketetan sartzea, irautea eta amaitzea erraztea, batez ere derrigorrezko ikasketen ondokoak

Jarduketa

Unibertsitateko beka orokorra, ezinduak garraiatzeko beka eta Bikaintasun akademikoko beka

Helburua

Unibertsitateko beka orokorraren, bikaintasun akademikoko bekaren eta mugitzeko zailtasun bereziak dituzten ikasleentzako bekaren deialdia izapidetzea.

Gauzatutako aurrekontua

26.605.454,28 €

Jarduketa

Hezkuntza Premia Bereziak dituzten ikasleen garraiorako laguntzak

Helburua

Eskola-garraioko banakako esleipenen deialdia, desgaitasun fisiko, psikiko edo sensoriala duten eta eskola-garraio arrunta erabili ezin duten ikastetxe publikoetan edo, salbuespen gisa, itunpeko ikastetxe pribatuetan eskolatuta dauden ikasleentzat.

Gauzatutako aurrekontua

3.133.098,97 €

EJren IV. Gazte Planaren urteko jarraipen-ebaluazioa: 2019

Ebaluazio-irizpideen betetze-maila

Hezkuntza

Apoyo a las personas jóvenes investigadoras

Jarduketa

Doktoreak ez diren ikertzaileak prestatzeko doktoratu aurreko programa

Helburua

Goi-mailako tituludun pertsonen berariazko prestakuntza sustatzeko laguntzak, baldin eta beren jarduera profesionala ikerketara bideratu nahi badute, doktorego-tesia egitera bideratuta.

Gauzatutako aurrekontua

7.918.979,56 €

Jarduketa

Programa Ikerbasque Research Fellow

Helburua

Programa Ikerbasque Research Fellow, ikertzaile gazteak kontratatzeko.

Gauzatutako aurrekontua

3.255.747,00 €

EJren IV. Gazte Planaren urteko jarraipen-ebaluazioa: 2019

Ebaluazio-irizpideen betetze-maila

Etxebizitza

Gazteen alokairua bultzatzeko formula eta neurri berriak garatzea

Jarduketa

Gazteek etxebizitza eskuratzeko aukera sustatzea, etxebizitza berriak, zuzkidura-bizitokiak edo bitartekaritza-programak alokatuz

Helburua

Gazteen emantzipazioa sustatzeko, etxebizitza babestuen lehentasunezko erreserba bat ezarriko da gazteentzat.

Gauzatutako aurrekontua

21.445.113,90 €

#04



2019. urtean garatutako jarduketa berriak



EJren IV. Gazte Planaren urteko jarraipen-ebaluazioa: 2019

2019. urtean garatutako jarduketa berriak

Eusko Jaurlaritzaren IV. Gazte Planaren 2019ko ekintza-planari esker, guztira **4 jarduketa berri jarri dira martxan**, eta **616.116,80 €-ko** aurrekontua bideratu da horietarako. Jarduera horiek honako ardatz hauetan banatuta daude:



EJren IV. Gazte Planaren urteko jarraipen-ebaluazioa: 2019

2019. urtean garatutako jarduketa berriak

1. Ardatza

Saila

Esku hartzeko ildoak

EMANTZIPAZIO ETA AUTONOMIA

ENPLEGUA

Lehen lan aukerak sustatzea

Jarduketa

Tokiko erakunedetan lan egiteko aukerak sustatzea, bereziki kalteturiko zonaldeetan

Helburua

Deialdi honen xedea da Europar Batasunak egoera ahulean dauden eremuetako toki-erakundeei eta langabeziak bereziki kaltetutako eremuei laguntzak ematea 2019ko ekitaldirako da, jardueraren xede den lurraldean ekonomia suspertzen eta enplegua sortzen lagunduko duten proiektuak abian jartzeko, Enpleguaren Euskal Estrategia 2020rekin eta emakumeen berdintasunaren printzipioarekin bat etorritz.

Gauzatutako aurrekontua

Esleitu gabea.

2. Ardatza

Saila

Esku hartzeko ildoak

BERDINTASUN ETA GIZARATERATZEA

**GIZARTE EKINTZA
ETA BERDINTASUNA**

Oinarrizko betetzea

Jarduketa

Hirugarren sektore sozialaren jarduerak sustatzea esku-hartze sozialaren eremuan

Helburua

Pertsonak, familiak, taldeak eta komunitateak gizarteratzea.

Gauzatutako aurrekontua

430.000,00 €

#05

Gazteriaren arloko 2020rako euskal strategiaren eraginaren adierazleak



EJren IV. Gazte Planaren urteko jarraipen-ebaluazioa: 2019

Gazteriaren arloko 2020rako euskal strategiaren eraginaren adierazleak

Atal honetan, gazteriaren arloko 2020rako euskal strategiaren definitutako eraginaren adierazleen zerrenda jasotzen da. Zehazki, Eusko Jaurlaritzaren 2018-2021erako IV. Gazte Planak euskal estrategia horretan egindako ekarpena neurtzeko, Planean definitutako egitura estrategikoari erantzuten dioten **40 adierazle** aurreikusten dira guztira:

Ardatza	Arloa	Helburua	Kopurua	Adierazlea	
Emantzipazioa eta autonomia	Enplegua	Hezkuntza-arloaren eta lan-arloaren arteko hurbilketa handiagoa eta batetik bestera azkarrago igarotzea	1	Unibertsitate-ikasketen ondorengo laneratze-tasa	
			2	LHko ikasketen ondorengo laneratze-tasa	
		Gazteriaren lan-baldintzak hobetzea	3	Gazteen langabezia-tasa	
			4	Ikasketekin bat datorren lana	
			5	Lan-istripuen tasa	
			6	Soldatapeko populazioaren behin-behinekotasun tasa	
		Gazte ekintzaile gehiago	7	Lanaldi partzialeko enplegu-tasa	
			8	Norberaren konturako enplegu-tasa	
		Baztertuta geratzeko arriskuan dauden gazteak laneratzea	9	Iraupen luzeko langabezia-tasa	
			10	Gehienez ere bigarren mailako ikasketa ez-profesionalak egin dituzten gazteen langabezia-tasa	
	11		Emantzipazio-tasa		
	12		Emantzipazioaren batez besteko adina		
	13		Etxebizitza librea alokatzearen kostua		
	Etxebizitza	Etxebizitza bat eskuratzeko aukera gehiago gazte-kolektiboarentzat	14	Alokairu bidezko emantzipazioa	
			15	Intolerantzia ideologikoa	
			16	Hirueletasun-tasa	
			17	Eskola-uzte goiztiarraren tasa	
			18	Goi-mailako Hezkuntzako portzentaia	
			19	Doktorego-tesia gaudituta	
Ongizatea eta bizitza osasungarria	Osasuna	Gazteen osasun mentala eta emozionala hobetzea	20	Suizidioarekin lotutako heriotzen tasa	
			21	Antsietate- eta depresio-arazoaren prebalentzia	
		Gazteen gehiegizko pisua eta obesitatea murriztea	22	Obesitate-tasa	
			23	Jarduera fisikoa	
		Gazteei sexu-bizitza osasungarria izaten laguntzea	24	Nerabeen haurduntza-tasa	
			25	Harreman sexual arriskutsuak	
			26	Gizonen trafiko-istripuen ondoriozko heriotza-tasa	
			27	Ohiko tabako-kontsumoa	
Berdintasuna eta gizarteratzea	Gizarte-ekintza eta berdintasuna	Gazteen portaera arriskutsuak eta/edo adikzioak (sustantziarekin edo gabe) prebenitzea	28	Alkohol-kontsumo gehiegizko eta arriskutsua	
			29	Kalamuaren ohiko kontsumoa	
		Baztertuta geratzeko arrisku-egoerak prebenitzea	30	Benetako pobrezia-tasa	
			31	Lan-sarbidean genero-desparekotasunaren pertzepzioa	
	Gizarte-partaidetza eta -konpromisoa	Partaidetza	Komunikazioa, partaidetza eta elkarren ezagutza bultzatzea	32	Emakumeen aurkako indarkeriaren tasa orokorra
				33	Ziberjazarpena
		Kontsumoa	Kontsumo arduratsua egiten duen gazte gehiago	34	Asoziazionismo-tasa
				35	Gai politikoetan parte hartu nahi izatea
	Sozializazioa	Kultura	Kulturaren kontsumoa bultzatzea eta gazteei zuzendutako zein gazteek sortutako kultura-jarduerak garatzeko interesa indartzea	36	Kontsumo iraunkorra
				37	Irakurtzeko ohitura
		Kirola	Kirola maila guztietan sustatzea	38	Arte-jardueretan parte hartzea
				39	Kirola erregulariki egitea
Aisialdia		Aisialdiko eremuetan euskararen erabilera sustatzea	40	Lagunekin euskararen erabiltzea	

EJren IV. Gazte Planaren urteko jarraipen-ebaluazioa: 2019

Gazteriaren arloko 2020rako euskal strategiaren eraginaren adierazleak

Jarraian, adierazle horietako bakoitzeko 2020rako xede-balioak edo espero diren emaitzak eta ebaluazio-txosten hau egiterakoan eskuragarri dauden balioak agertzen dira.

	Adierazlea	Oinarrizko lerroa*	Azken datua	2020rako xedea Espero den emaitza
1	Unibertsitate-ikasketen ondorengo laneratze-tasa	74,3 % (2016)	84,0 % (2019)	> 80 %
2	LHko ikasketen ondorengo laneratze-tasa	72,4 % (2016)	82,6 % (2019)	>80 %
3	Gazteen langabezia-tasa	23,7 % (2016)	17,8 % (2019)	< 15 %
4	Ikasketekin bat datorren lana	52,7 % (2015)	60,4 % (2019)	> 60 %
5	Lan-istripuen tasa	36,4 x 1.000 (2015)	41,2 x 1.000 (2018)	< 40 x 1.000
6	Soldatapeko populazioaren behin-behinekotasun tasa	66,9 % (2016)	64,3 % (2019)	< 65 %
7	Lanaldi partzialeko enplegu-tasa	30,4 % (2016)	31,8 % (2019)	< 30 %
8	Norberaren konturako enplegu-tasa	6,3 % (2015)	4,8 % (2019)	> 10 %
9	Iraupen luzeko langabezia-tasa	9,4 % (2016)	4,4 % (2019)	< 5 %
10	Gehienez ere bigarren mailako ikasketa ez-profesionalak egin dituzten gazteen langabezia-tasa	32,6 % (2016)	25,0 (2018)	< 25 %
11	Emantzipazio-tasa	40,9 % (2015)	37,0 % (2018)	> 40 %
12	Emantzipazioaren batez besteko adina	29,8 años (2015)	29,6 años (2017)	< 29 años
13	Etxebizitza librea alokatzearen kostua	65,8 % (2015)	77,0 % (2018)	< 63, 5 %
14	Alokairu bidezko emantzipazioa	55,3 % (2015)	55,3 % (2017)	> 56 %
15	Intolerantzia ideologikoa	16,6 % (2016)	16,6 (2016)	< 15 %
16	Hirueletasun-tasa	34,6 % (2016)	49,3 % (2019)	> 38 %
17	Eskola-uzte goiztiarraren tasa	7,2 % (2014)	11,3 % (2018)	< 7 %
18	Goi-mailako Hezkuntzako portzentaia	48,9 % (2014)	49,3 % (2017)	> 50 %
19	Doktorego-tesia gaindituta	400 (2016)	236 (2018)	> 400
20	Suizidioarekin lotutako heriotzen tasa	4,2 x 100.000 (2016)	3,1 x 100.000 (2018)	< 4

* **Oinarrizko lerroa** finkatzeko, 2017ko martxoan eskuragarri zeuden datuak hartu dira; hau da, gazteriaren arloko 2020rako euskal strategiaren bitarteko ebaluazioa egin zen garaiko datuak.

EJren IV. Gazte Planaren urteko jarraipen-ebaluazioa: 2019

Gazteriaren arloko 2020rako euskal strategiaren eraginaren adierazleak

	Adierazlea	Oinarrizko lerroa*	2019ko datua	2020rako xedea Espero den emaitza
21	Antsietate- eta depresio-arazoen prebalentzia	13,7 % (2013)	8,3 % (2018)	< 10 %
22	Obesitate-tasa	5,4 % (2013)	4,2 % (2018)	< 4 %
23	Jarduera fisikoa	75,3 % (2013)	86,3 % (2018)	> 85 %
24	Nerabeen haurduntza-tasa	7,6 x 1.000 (2014)	5,1 x 1.000 (2018)	< 7 x 1.000
25	Harreman sexual arriskutsuak	15,2 % (2016)	15,2 % (2016)	< 15 %
26	Gizonen trafiko-istripuen ondoriozko heriotza-tasa	4,2 x 100.000 (2014)	2,0 x 100.000 (2019)	< 4 x 100.000
27	Ohiko tabako-kontsumoa	23,5% (2012)	18,5 % (2017)	< 18 %
28	Alkohol-kontsumo gehiegizko eta arriskutsua	24,5 % (2012)	20,3 % (2017)	< 20 %
29	Kalamuaren ohiko kontsumoa	4,3 % (2012)	4,2 % (2017)	< 4 %
30	Benetako pobrezia-tasa	8,1 % (2016)	9,2 (2018)	< 8 %
31	Lan-sarbidean genero-desparekotasunaren pertzepzioa	24,3 % (2016)	24,3 (2016)	< 20 %
32	Emakumeen aurkako indarkeriaren tasa orokorra	7,5 x 1.000 (2016)	9,2 x 1.000 (2019)	< 7 x 1.000
33	Ziberjazarpena	4,5 % (2016)	4,5 % (2016)	< 4 %
34	Asoziazionismo-tasa	46,2 % (2016)	46,2 % (2016)	> 50 %
35	Gai politikoetan parte hartu nahi izatea	42,4 % (2016)	42,4 % (2016)	> 45 %
36	Kontsumo iraunkorra	29,8 % (2016)	29,8 % (2016)	> 35 %
37	Irakurtzeko ohitura	54,4 % (2016)	52,2 % (2018)	> 55 %
38	Arte-jardueretan parte hartzea	55,1 % (2016)	44,0 % (2018)	> 58 %
39	Kirola erregulariki egitea	49,0 % (2016)	49,0 % (2016)	> 50 %
40	Lagunekin euskararen erabiltzea	35,3 % (2016)	35,3 % (2016)	> 38 %

* **Oinarrizko lerroa** finkatzeko, 2017ko martxoan eskuragarri zeuden datuak hartu dira; hau da, gazteriaren arloko 2020rako euskal strategiaren bitarteko ebaluazioa egin zen garaiko datuak.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

ENPLEGUKO ETA GIZARTE
POLITIKETAKO SAILA

DEPARTAMENTO DE EMPLEO
Y POLÍTICAS SOCIALES

4. #gazteplana#
EUSKO JAURLARITZA | GOBIERNO VASCO